

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 516.000 euro erabiliko ditu Arguedasko parte zaharreko zenbait kale berritzeko

Elizalde kontseilariak Nafarroan fabrikatutako eta lanetan erabili den zoladura ekologikoaren onurak azpimarratu ditu

Asteartea, 2016.eko irailak 27

Nafarroako Gobernuak 516.000 euroko diru-laguntza eman du Arguedasko parte zaharreko sareak, hornidura eta zoladura berritzeko obrak egiteko. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizaldek gaur goizean inauguratu du Tokiko Azpiegitura Planean dagoen jarduketa hori. Obretan "Nafarroan fabrikatutako zoladura ekologikoa erabili dela" nabarmendu du, "eta horrek Arguedas udalerrri iraunkorrago bihurtzen duela".

Zehazki, erabilitako materiala hormigoi ekologikoko lauzak dira, PVT enpresa tuterarrak egindakoak, eguzki-argia dagoenean aktibatzen dira eta landareen fotosintesiaren antzeko erreakzioa sortzen dute. Hala, gas kaltegarriak osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak ez diren konposatu bihurtzen dira, eta horri esker, Erriberan data jakin batzuetan sortzen den arazoa arindu ahalko da ozono troposferikoaren kutsadura dela-eta. Alde horretatik, Elizaldek dio kutsadura kentzeko jarritako 7.500 m² lauzei esker, "urtebetean 3.000 autok sortutako kutsadura desagerrarazi daitekeela".

Gainera, Elizaldek aipatu du obra hori hurbileko eta ekonomia zirkularreko berrikuntzaren eredu dela; izan ere, "gehienbat eraikuntzatik etorritako material birziklatuarekin Erriberan egindako zoladura ekologikoa da eta, beraz, hondakin bat baliabide bihurtzen da".



Elizalde kontseilaria jarduketa egin den zonaldea bisitatzen. Zuzendari nagusia (ezkerrean) eta alkatea (eskuinean) ditu alboan.

Ekitaldian parte hartu dute, halaber, Toki Administrazioiko zuzendari nagusi Xabier Lasak eta Arguedasko alkate Fernando Mendozak.

Obren ezaugarriak

850.000 euro inguruko aurrekontua izan duten obrak Harinsa Navasfalt SA eta HNV Infraestructuras SL ABEEk egin ditu Joaquín Aliaga Montes industria-ingeniariaren eta arkitekto teknikoaren zuzendaritzapean. Honako obra hauek, hain zuzen ere: ur beltzen eta euri-uren hornikuntzako eta saneamenduko hodiak berritu dira, bai eta lehendik zeuden sareen loturak ere, harguneak berritu dira, eta ondorengo kaleetako espaloiak nahiz galtzadetako zoladura: San Ignacio, Lino Munárriz, Nagusia, Auzo Berria, Postigo, La Peña, El Val, La Concha, Santo Tomás, Vínculo eta Urbano, bai eta Foruen plaza eta San Estebangoa ere.



Arguedasen berritutako kale bat.

Hornitzeko sarea diametro askotako intentsitate handiko polietileno-hodi batekin egin da, aurrekoaren tipologiari jarraiki. Lotuneak jarri dira dagokien balbulekin sareko zatiak isolatzea uzten duten tokietan. Gainera, ur-harguneak eta hidranteak jarri dira lurpean.

Gainera, ur beltzak eta euri-urak bereizteko sare bat jarri da. Kolektoreen hodia diametro askotako PVCkoa da. Aurrefabrikatutako putzuak jarri dira hormigoizko elementuekin kolektoreetako elkarguneetan, bai eta lerrotze-aldaketetan ere. Eta lehendik zeuden etxeetako harguneak ere aldatu dira dagozkien erregistroak edo kutxatilik jarritz.

Zoladuran galtzada eta espaloiak maila berean egin dira. Espaloietan zoladura "tako" izeneko baldosekin egin da edo hormigoizko galtzada-harriarekin hormigoizko zolata gainean finkatuta, zabor-legarreko geruza baten gainean jarrita. Galtzadan, ibilgailu gehien dabilen kaleetan zoladura 15 zentimetro lodiko hormigoizkoa da 15 zentimetro lodiko beste zabor-legarraren gainean jarrita, azaleko akaberarekin (zementuarekin, talotxarekin eta erdi landu mekanikoarekin hautseztatuta). Zirkulazio gutxiagoko kaleetan koloreztatutako hormigoizko aurrefabrikatutako piezak daude morteroarekin finkatuta 12 zentimetroko hormigoizko gainean, eta 15 zentimetro lodiko zabor-legarreko geruza bati eutsita. Azaleko drainatzea egin da, zoruari maldak emanaz eta ura galdaketako sareten bidez jasoz edo kale erdian jarritako estoldazuloen bidez, euri-uren kolektorearekin lotzen direnak.

Aurrez Tuterara egindako bisita

Arguedasko ekitaldiaren aurretik, Elizalde kontseilariak PVT zoladura-fabrika bisitatu du Tuteran "ecoGranic" bere produktua ezagutzeko, Arguedasko obretan erabili dena, gorago aipatu den moduan.

Gainera, [Huertas Mayores bideko](#) obrak bisitatu ditu; haien bidez, institutura iristeko arazoak konpontzen dira, eta bertan zoladura bera ere erabiliko da.